

Zer dagik?

Udako gau sor batean
—zabal zegon balkoia
ta nire etxeko ate—
Erio yat barrura.

Aren oeruntz urbil zan
—niri begiratzeke—,
eta atzamar ubel guriz
zerbait ausi eban mee.

Mintzul ta begitu barik
jun zan Erio, ostera,
nire ondotik. —Zer dagik?
Ak ez itzik atera.

Nare egoan nire aurra,
ni biotz-odoletan.
Ai, arek ausi ebana
bion tarte mintza zan!

Oraindik ez

Amabi jo ditu orduak... ta amabi
atxurkada dira lurrean emonak...
...Ene ordua! —nik oiu andi— ...Ixilak
au erantzun eustan: —Etzaitez bildurtu,
are-orduarian dardarazten dan
azken-tanta jausten, ez dozu ikusiko.

Oraindiño ordurik askoz dagizu lo
itxas-ertz zarraren gaiñean nasaitsu,
ta beste ur-ertzean ontzia lotzean
goiz argi aratz bat idoroko dozu.

Umeen kanta

Eresik dantzudaz
soiñu zarrezko,
aurrak abestuta
jolas-pilloko;
barne ameskorak
ixurtzen dabez,
arrizko iturriak
euren ura lez:
alaikor ez diran

barre azken bako
soiñu bardínez,
mergatzak ez diran
min-malko zarrez;
ta ituna diñoe
jori bakuna,
elezar joanen
maite-ituna.

Aurren ezpanetan
kantak daroe
edestia naspil,
argi oiñaze;
urak be ba-dabil,
garbi-urdíña,
iñoi esan bako
maitasun zarren
sorgin-ipuiña.

Zei zar gerizatsu
batent jostari
dabiltzaz umeak
kanta-kantari...

Arrizko iturria
elezarrezko
leiar betikoa
ixuriz dago.

Abesti bakunak
kanta-kantari
diardue aurrak,
jira-birari;
joan doan zerbait,
biurtze bage:
edestia naspil,
argi oiñaze.

Ur-sorgu ozkirrak
kantari darrai;
edestia aizturik,
miña kantagai.